

BEAUDON, N (2013)

*Una escuela para cada estudiante. La relación interpersonal, clave del proceso educativo.* Madril: Narcea.

Liburu honetan hezkuntza praktikaren alderdi ineteresgarri bezain garrantzitsu bati heltzen dio autoreak: hezitzailearen edo irakaslearen eta hezigaiaren eta ikaslearen arteko erlazioari. Are gehiago, bien arteko elkarrekintzak ikas-prozesuna duen balio poedagogikoari buruz ari zaigu, hain zuzen ere.

Horretarako guztirako, sekuentzia ulergarri bat agertzen digu autoreak. Curriculumetik haratago doan hezkuntza-praktikaz aritzen da liburuaren pasarte gehienetan, non ikaslearen alderdi emozional zein afektiboa eta irakasleak horretarako agertu behar dituen trebetasunak azaltzen dituen. Hori da, hain justu, liburuaren helburua: irakaskuntza eta hezkuntza praktika gidatuko dituen printzipio zenbait azaltzea, eta horiek liburuaren amaiera aldera ematen ditu autoreak, ondorio modura; 12 orotara: gatazkak onbideratzeko gai izatea, barne-gogoeta sustatzea, eginkizunetan zorrotza izatea, errespetuz jokatzeta, beti erantzutea, errutinak izatea, ikasleentzako eredu izatea, estresa saihestea, erantzukizunez jokatzeta, erresilentziaz jokatzeta eta irakaskuntza bizitza sortzaile gisa hartzea. Labur eta modu sintetikoan agertzen dizkigu, eta batzuetan gehixeago sakontzeko gogoz geratzen da irakurlea.

Horraino iristeko, orduan, hainbat ideiaz jantzen gaitu, eta gogorarazten dizkigu. Dewey-k sortu eta garatutako *learning by doing* kontzeptuaz baliatzen da, alegia ikaskuntza-irakaskuntza prozesuetan praktikak duen garrantzia azalarazten digu, eta hori nola uztartzen den erlazioarekin. Gainera, ikuspegi horrek dakar ikasleek euren kezkek eta zailtasunak esplizitatu ditzaketela ikas-prozesuearen jabe izan daitezkeela. Hortik abiatuta kox-

ka bat aurrera egiten du ondoko ideia honetan sakontzeko: ikasleei ahotsa ematearen beharraz, eta ikasleei entzuteko beharraz. Ikuspegi hori hobeto ulertze aldera, hainbat eta hainbat adibide praktiko ematen ditu. Adibideen ugaritasuna da liburuaren alderdi interesgarrienetako bat: ideiak adibidez hornituta daude.

Eskolan soilik ez da geratzen autorearen gogoeta eta praktika proposamena. Ikas-komunitateen rolaz ere jabearazten gaitu, eskolaren hainbat jokabide zein inertiak galagatzeko tresna gisa aurkezten digu, non elkarriketa praktikaren erdigunean kokatzen duen.

Etorkizuneko ildo gisa Beaudoin-ek berrikuntzaren ideia jartzen du erdiz-erdi; izan ere, aldatzeko —eta berarena aldatetarako proposamena da—, ezinbestean, berritu behar baita. Horretarako irakasleon jarrera aldaketa funtsezkotzat jotzen du, eta hainbat ildo ematen dizkugu hori geratzeko.

Adibideen oparotasuna positibotzat jo badut ere, zenbaitetan, ideietan gehiago sakontzea eskertuko nioke autoreari. Ideia batzuk nahikoa ezagunak baitira hezkuntzaren munduan, eta ekarpen teorikoa kamutsa da zentzu horretan.

Nolanahi ere, kapitulu bakoitzaren bukaeran azaltzen diren galderak ekarpen intersgarria dira, bai norberak bere kabuz erantzuteko eta barne-gogoeta elikatzeko, baita modu partekatuan egiteko; hots, elkarriketa eta elkarrekintza pedagogikoa sustatzeko norberak bere praktika hobetzeko bidean.

*Asier Huegun Burgos*